*Azaroaren 25eko 80/1997 FORU DEKRETUA, Eskulangile Maisuaren Egiaztagiria ematea arautzeari buruzkoa.*

Irailaren 10eko 75/1996 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Eskulangintza arautzekoak, 5. artikuluko 5. atalean jasotzen du eskulangile maisuaren irudia. Xedapen hau, hortaz, babes arauditzat hartu behar da eta maisuaren irudi hori itxuratzea du helburu, lanbideen jarraipena bermatzeko eta, eskulangintza arloko maisuaren titulua emanez, beren lanbideetan mailarik handienak lortu dituzten pertsonek dituzten merezimenduen aintzatespena ziurtatzeko.

Aurreko atalean ezarritakoa betez, honako foru dekretu honek hainbat alderdi biltzen du bere artikuluetan zehar, hala nola dekretuaren beraren xedea, eskulangile maisuaren tituluak berekin daramatzan eskubide eta betekizunak, eta titulu hori emateko zein eskuratzeko prozedura.

Hori guztia dela eta, Diputatuen Kontseiluak aurrez eztabaidaturik eta Ekonomia eta Turismoko foru diputatuak proposaturik, gaurko bileran,

XEDATU DUT

*1. artikulua. Gaia.*

Foru dekretu honen gaia eskulangile maisuaren irudia arautzea eta horren titulua lortzeko baldintzak ezartzea da.

*2. artikulua. Xedea.*

2.1. Eskulangile maisuaren titulua da titularrak bere eskulangintzan aritzeko behar besteko esperientzia eta jakintza baduela egiaztatzen duen agiria.

2.2. Eskulangile maisua izateak, honako hau dakar berekin:

Lan jarduera baten aintzatespen publikoa egitea eta titularrari gaitasuna aitortzea eskulangintza arloko lanbide tradizionalen iraupenean funtsezko eginkizuna burutzeko, irakaskuntzaren bidez batez ere, eta eskulangintzako jarduerarekin zerikusia duten organo teknikoetan parte hartzeko.

2.3. Eskulangile maisuaren tituluak, borondatezkoa izaki, mugagabeko indarraldia izango du. Hala ere, bere balioa gal dezake, ondoko balizko hauetako bat gertatuz gero:

a) Titularrak berak eskatzea.

b) Titularra hiltzea.

c) Foru dekretu honetan ezarritako baldintzak ez betetzea.

2.4. Ekonomia eta Turismo Departamentuak egoki deritzen egiaztapen guztiak egin ahal izango ditu, edozein unetan, foru dekretu honetan ezarritako baldintzak betetzen direla ziurtatzearren betiere.

*3. artikulua. Eskulangile Maisuaren Titulua lortzeko baldintzak.*

Eskaria egiten duten pertsonek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Kasuan kasuko lanbideko jardueran, partaidetza pertsonala eta zuzena izatea.

b) Eskulangintzako enpresa baten zuzendaritzan eta jardueran bertan eginkizunak bete izana, 10 urtez gutxienez.

*DECRETO FORAL 80/1997 de 25 de noviembre, por el que se regula la concesión de acreditaciones de Maestría Artesanal.*

El Decreto Foral 75/1996 de 10 de setiembre, regulador de la Artesanía de Gipuzkoa contempla en el apartado 5.º de su artículo 5.º la creación de la figura del Maestro Artesano. Esta disposición queda localizada dentro del régimen de protección y pretende configurar la citada figura como instrumento para garantizar la continuidad de los oficios y de reconocimiento, mediante la concesión del título de Maestría en materia artesanal, de los méritos necesarios que concurren en aquellas personas que han alcanzado los mayores niveles en el ejercicio de sus oficios.

En cumplimiento de lo establecido en el apartado anterior, el presente Decreto Foral recoge en su articulado aspectos tales como el objeto del mismo, los aspectos de derechos y obligaciones que conlleva el título de Maestría Artesanal, así como el procedimiento para su concesión.

Por todo ello, a propuesta del Diputado Foral de Economía y Turismo previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión de la misma fecha,

DISPONGO

*Artículo 1.º Objeto.*

Es objeto del presente Decreto Foral la regulación de la figura de Maestría Artesanal así como de las condiciones para la obtención de dicho título.

*Artículo 2.º Finalidad.*

2.1. El título de Maestría Artesanal es el documento acreditativo de que su titular posee la experiencia y conocimientos suficientes para el adecuado desarrollo de su oficio artesanal.

2.2. La condición de Maestría Artesanal implica:

El reconocimiento público de una trayectoria profesional que cualifica a su titular para una actuación clave en la conservación de oficios artesanos tradicionales, fundamentalmente mediante una labor docente, y para formar parte de los órganos técnicos relacionados con la actividad artesana.

2.3. El título de Maestría Artesanal, de carácter voluntario, tendrá una vigencia indefinida, no obstante puede perder su validez por cualquiera de las siguientes causas:

a) A petición propia.

b) Por muerte de su titular.

c) Por incumplimiento de los requisitos establecidos en el presente Decreto Foral.

2.4. El Departamento de Economía y Turismo podrá en cualquier momento realizar las comprobaciones oportunas respecto del cumplimiento de los requisitos establecidos en el presente Decreto Foral.

*Artículo 3.º Requisitos para la obtención del Título de Maestría Artesanal.*

Las personas solicitantes deben cumplir con los siguientes requisitos:

a) Tener intervención personal y directa en la ejecución del oficio de que se trate.

b) Haber desempeñado funciones de dirección y participación en la actividad de una Empresa Artesana durante un período mínimo de 10 años.

c) Irailaren 10eko 75/1996 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Eskulangintza arautzekoak, eskulangiletzat hartzeko ezarritako baldintzak betetzea.

d) Zerga betekizunetan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean egotea. Horren inguruan, Ekonomia eta Turismo Departamentuak beharrezko egiaztapen guztiak egin ahal izango ditu.

*4. artikulua. Eskariak aurkeztea.*

Titulua eskuratzeko eskariak Ekonomia eta Turismo Departamentuaren Erregistro Orokorrean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erregistro Osagarrian edota, bestela, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazio Guztien Zuzenbide Arauei eta Administrazio Prozedurari buruzkoak, bere 38.4 artikuluan, aurreikusitako moduez baliatuz aurkeztu ahal izango dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eskulangile maisuaren titulua eman ahal izango die, ofizioz, Gipuzkoako Eskulangintza Tradizional eta Herritarraren Erroldan izena emanda dauden pertsonei, Foru dekretu honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte, hauek uko egiteko duten aukeraren kaltetan izan gabe inolaz ere.

*5. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak.*

5.1. Eskariak aurkezteko unean, Ekonomia eta Turismo Departamentuak interesatuei eskuratuko dien eredu arautua erabili beharko da, eta erantsiko zaizkio bertan zehazturiko agiri eta informazio guzti-guztiak.

5.2. Ekonomia eta Turismo Departamentuak, aurkezten diren eskariak behar bezala baloratzeko eta erabakitzeko, beharrezko deritzon informazio guztia eska diezaieke eskatzaileei. Eskaturiko informazio hori azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazio Guztien Zuzenbide Arauei eta Administrazio Prozedurari buruzkoak, bere 71. artikuluan aurreikusitako epearen barruan jaso ezean, eskaria bertan behera utzi dela ulertuko da, eta beste inolako tramiterik gabe artxibatuta geratuko da.

5.3. Titularren espedienteetan merezimendu kontzeptuan agertzea nahi izanez gero, aurkezten diren eskariek honako alderdi hauei buruzko informazioa jaso beharko dute, ezinbestez:

a) Lan jardueran zehar eginiko lana.

b) Eskolako eta lanbideko titulazioak.

c) Egindako prestakuntzaikastaroak.

d) Ikastunen prestakuntzarekin loturiko jarduerak.

e) Beste edozein merezimendu.

*6. artikulua. Prozedura.*

6.1. Eskaria baloratu ondoren, eta Ekonomia eta Turismo Departamentuko foru diputatuak erabakia hartu aurretik, eskaria egin duten pertsonei jakinaraziko zaie erabaki proposamena, eta horiek bidezko deritzoten guztia alegatu ahal izango dute, kasuan kasuko agiriak erantsita, jakinarazpenaren unetik hasita hamabost laneguneko epean,. Eskaria egin duten pertsonak horrelakorik egin ezean, egin den proposamenari onespen formala ematen diola ulertuko da.

6.2. Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazio Guztien Zuzenbide Arauei eta Administrazio Prozedurari buruzkoak, bere 42. artikuluan, aurreikusitako gehienezko epearen baitan berariazko erabakirik eman ezean, eskaria ezetsi dela ulertuko da.

c) Cumplir con los requisitos establecidos en el Decreto Foral 75/1996 de 10 de setiembre, regulador de la Artesanía de Gipuzkoa, para ser considerado artesano.

d) Encontrarse al corriente con el cumplimiento de sus obligaciones fiscales y de Seguridad Social. A tal fin el Departamento de Economía y Turismo podrá realizar las comprobaciones oportunas.

*Artículo 4.º Presentación de solicitudes.*

Las solicitudes se presentarán en el Registro General del Departamento de Economía y Turismo, Registro Auxiliar de la Diputación Foral de Gipuzkoa o por cualquiera de los medios previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

La Diputación Foral de Gipuzkoa podrá de oficio, otorgar el título de Maestría Artesanal a aquellas personas inscritas en el Registro de Artesanos Tradicionales y Populares de Gipuzkoa que cumplan los requisitos establecidos en el presente Decreto Foral, sin perjuicio de su posibilidad de renuncia.

*Artículo 5.º Documentación a presentar.*

5.1. Las solicitudes deben de presentarse en el modelo normalizado que el Departamento de Economía y Turismo facilitará a las personas interesadas y al que habrá que adjuntar la documentación e información que en el mismo se especifica.

5.2. El Departamento de Economía y Turismo podrá pedir a las personas solicitantes cuanta información entienda necesaria para la correcta evaluación y resolución de las solicitudes que se presenten, de no recibirse dicha información en el plazo previsto en el artículo 71 de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre sobre Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común se dará por desistida la solicitud archivándose sin más trámite.

5.3. Con el fin de que conste en el expediente de su titular en concepto de mérito, las solicitudes que se presenten deben contener necesariamente información sobre:

a) La labor realizada en su trayectoria profesional.

b) Las titulaciones académicas y profesionales.

c) Los cursos de formación recibidos.

d) Las actividades relacionadas con la formación de aprendices.

e) Cualquier otro mérito.

*Artículo 6.º Procedimiento.*

6.1. Una vez evaluada la solicitud y previa a la resolución por parte del Diputado Foral de Economía y Turismo se comunicará a las personas solicitantes la propuesta de resolución, quienes deberán alegar cuantas circunstancias consideren pertinentes en el plazo de quince días hábiles desde la notificación, aportando en cada caso la documentación que estimen oportuna. Se entenderá que el silencio de la persona solicitante supone la aceptación formal de la citada propuesta.

6.2. De no mediar resolución expresa en el plazo máximo previsto en el artículo 42 de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre sobre Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común se entenderá desestimada la solicitud.

6.3. Ekonomia eta Turismoko foru diputatuak erabakiko ditu eskariak, Gipuzkoako Eskulangintzaren Kontseiluak aurrez emandako irizpenaren ondotik.

## AMAIERAKO XEDAPENAK

*Lehena.*

Ahalmena ematen zaio Ekonomia eta Turismo Departamentuko foru diputatuari, foru dekretu hau behar bezala aplikatzeko beharrezko xedapen guztiak emateko eta garatzeko.

*Bigarrena.*

Foru dekretu hau, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Donostia, 1997ko azaroak 25.

DIPUTATU NAGUSIAK,
Roman Sudupe Olaizola.

EKONOMIA ETA TURISMO
DEPARTAMENTUKO
FORU DIPUTATUAK,
Guillermo Echenique González.

(11899)

6.3. El Diputado Foral de Economía y Turismo resolverá sobre las solicitudes, previo informe del Consejo Guipuzcoano de la Artesanía.

## DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*

Se faculta al Diputado Foral titular del Departamento de Economía y Turismo para el desarrollo y dictado de cuantas disposiciones sean necesarias para la correcta aplicación del presente Decreto Foral.

*Segunda.*

El presente Decreto Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Donostia-San Sebastián, a 25 de noviembre de 1997.

EL DIPUTADO GENERAL,
Roman Sudupe Olaizola.

EL DIPUTADO FORAL
DEL DEPARTAMENTO DE
ECONOMIA Y TURISMO,
Guillermo Echenique González.

(11899)